

FITXA: 199 - BIZKAIA - Adin guztientzako lurralde bihurtzen lagunduko duten toki entitateen proiektuetarako 2026rako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Nori zuzendua: Honako hauek izan daitezke dirulaguntza honen onuradun: Euskadi Lagunkoia Udalerrien Sareari eta OMEn Hiri Adeitsuen Munduko Sareari atxiki zaizkion edo, atxikita ez badaude, atxikitzeko eskaera egin duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, mankomunitate zein udal partzuergoak, baldin eta beren lurralde-eremuan OMEn proiektua ezartzeko erabakia hartu badute edo ezartzen hasi badira.

Deialdia: BAO - Bizkaiko Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/02/20
Ofiziala

Sarbide-esteka:

<https://appstac.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Erreferentziazko araudia: 142/2025 FORU DEKRETUA -
https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/02/20/I-16_eus.pdf

Eragin eremuak: Gizarte Politika

Zenbatekoa: 200.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/02/23

Aurkezteko azken eguna: 2026/05/25

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Erakunde eskatzaileak aurrekontuan sartutako gastu propioen %50, bai langileenak, bai orokorrenak eta/edo zeharkakoenak. Erakunde eskatzaileak aurrekontuan jasotako kanpoko gastuen %70.

Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu

Laburpena

Foru dekretu honen helburua da Bizkaiko Foru Aldundiak Osasunaren Mundu Erakundearen metodologian oinarritutako «Hiri Adeitsuak Adinekoekin» Proiektua (OMEn Proiektua, aurrerantzean) Bizkaiko Lurralde Historikoan ezartzea sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak 2026an norgehiagokarik gabeko araubidean emango dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onartzea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

a) Mekanismoak ezartzea adinekoek proiektua prestatzen parte har dezaten. Adinekoek teknikari, toki eta udal-ordezkarri politiko eta komunitateko bestelako eragileekin osatuko dute proiektuaren talde eragilea. Talde eragileak, Bizkaia adin guztientzako lurraldea bihurtzea lortzeko, adiskidetasunaren diagnostikoan, ekintza planaren elaborazioan eta etengabeko hobekuntzan aktiboki parte hartuko du.

b) Udalerri, mankomunitate edo udalerrien partzuergoaren adeitasun-mailaren diagnosia egitea, eta ekintzako eta jarraipen-adierazleen identifikazioko plan bat prestatzea, kontuan hartuta zahartze aktiboa baldintzatzen duten zortzi arloetako lau gutxienez. Arlook honako hauek dira: aire zabaleko espazioak eta eraikinak, garraioa, etxebizitza, partaidetza soziala, begirunea eta gizarte-inklusioa, hiriko partaidetza eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, eta Gizarte eta osasuneko zerbitzuak.

c) Gauzatzeko jarduketak. Gauzatze-fasean, talde eragilearen mantentze-lanekin, proiektuaren hedapenarekin eta zabalkundearekin, kanpoko eragileekiko koordinazioarekin (OME, Euskadi Lagunkoia, tokiko erakundeak, udalerriko elkarteak eta enpresak...) eta proiektuan parte hartzen duten pertsonen dinamizazioarekin zerikusia duten jarduerak baino ez dira diruz lagunduko.

d) Ekintza-planaren gauzatzearen jarraipen, ebaluazio eta kontrol-jarduketak.

e) Etengabeko hobekuntzarako jarduketak.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xedea betetzeko epea 2026ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2026ko abenduaren 31n amaituko da.